

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure lehendabiziko jarduera, zerbitzu interesgarri eta erakargarri bat eskaintzea da. Aplikazio honekin ikasleen arreta erakartzea da gure helburu garrantzitsua. Aplikazioa erakargarria izatea ikasleentzat ez denez jarduera erraza, ahalik eta diseinu politena erabiltzen saiatu gara. Gure produktuaren helburua, ikasleak errazago eta erosoago ikastea da.

Web orriaren kontrola, guk kontratatutako norbaitek izango du hasiera batean, batez ere apur batean laguntzeko, gero guk geuk ikasiko dugu eta gure kabuz ibiliko gara web orriaren kontrolarekin. Etorkizunean enpresa bide onetik badoa eta irabaziak lortzen baditugu, web orriaren kontrola aditu batzuen menpe utziko genuke. Hau lagunduko liguke profesionaltasun gehiagorekin lan egitea, eta denbora aurreztuko genuke. Gure bezereok guk eskainitako zerbitzuarekin ez badaude pozik, erreboltso bat eskainiko genieke. Erreboltso honek, zerbitzua erosten den momentutik 7 egunerarte egin liteke. Bestalde, gure zerbitzuan hobekuntzak egingo genituen. Gure bezeroen ikaskuntza funtsezkoa da guretzat eta hauen poza gure zerbitzuarekin ere.



Sare sozialei garrantzia handia emango diegu. Izan ere, gaur egungo gazteek sare sozialeen erabilera handia daukate, eta bertan ikusitako iragarki askori kasu egiten die. Horregaitik, Instagram eta Tik Tok kontua sortuko dugu: EasyStudy izenarekin. Kontu horren bitartez, bideo entretenigarriak egingo ditugu jendea erakartzeko. Galdera tranpak erabiliko ditugu, interes handikoak, adibidez: daukazun hurrengo azterketa aprobata nahi duzu?.